

Gurutze Gorriak 17,7 milioi kilo janari banatuko ditu ia 730.000 lagunen artean

- **Gizarte-egoera ahulenean dauden Pertsoneri Laguntzeko Funts Europarraren (FEAD) 2021eko programaren bigarren eta azken fasea da hau.**

2021eko urriaren 11. Hasi dira etxe behartsuenetara iristen Janari Laguntzaren 2021eko Programako 17,7 milioi kilo janari baino gehiago. Gurutze Gorria eta Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioa (FESBAL) arduratuko dira, erdi bana, bigarren fase honetako produktuak banatzeaz. Programa horren % 85a gizarte-egoera ahulenean dauden Pertsoneri Laguntzeko Funts Europarrarekin (FEAD) finantzatuko da, eta gainerako % 15a, berriz, aurrekontu nazionalarekin. FEAD programak pobrezia-modu okerrenak arintzen laguntzen du, eta, horretarako, laguntza ez-finantzarioa ematen die egoera ahulenean dauden pertsoneri, elikagai gisa, eta gizarteratze-jarduerak egiten ditu.

Elikadura gizaki guztien oinarrizko eskubidea da, "eskuarki, duintasunez elikatzeko eskubidetzat hartuta", nabarmendu du María Jesús Gilek, Janari Laguntzaren Programa Eragilearen arduradunak, "elikadura egokia izateko eskubidea, elikagaia funtsezko elementua baita bizirik irauteko".

729.780 lagunek baino gehiagok jasoko dute produktu-saski bat, eta hori laguntza handia da gizartean zailtasunak dituzten familien eguneroko bizitzan, erraz garraiatu eta biltegitratzeko moduko oinarrizko elikagaiak ematen baitzaizkie. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa arduratzen da, Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsaren (FEGA) bidez, elikagai egokiak aukeratzeaz, hauexek da, oinarrizko kalitate- eta barietate-irizpideak betetzen dituztenak, erraz manipulatzeko eta kontserbatzeko modukoak, bizitza erabilgarri luzea eta elikagaiaren azken erabilerarako formatu egokia dutenak.

Zehazki, datozen asteetan 17.773.056 kilo arroz zuri, olio, kakao disolbagarria, atun-kontserbak, galletak, garbantzu egosiak, esnea, kontserbako barazkiak, espagetiak eta kontserbako tomate frijitua banatuko dira. "Produktu-saski" horrek haurrentzako fruta- eta oilasko-potetxoak ere eramaten ditu beren ardurapean haurrak dituzten familien kasuan.

Leire Alfageme De Arriba

Marka eta Komunikazio autonomikoaren arduraduna

| +34 683590428 | comunicacionalava@cruzroja.es | **Euskadi.** Portal de Castilla, 52. 01007 Vitoria-Gasteiz.

Bigarren banaketa horretan urteko produktu guztien % 60 banatuko da, 2021. urtean bi fasetan egingo baita, eta ez hirutan, beste batzuetan bezala.

Gurutze Gorria arduratzen da baimendutako 2.327 banaketa-erakunde elkarturi baino gehiagori elikagaiak banatzeaz; horien artean daude bere lurralde-sareko 500 Tokiko Batzar baino gehiago. Erakunde horiek, era berean, doan banatzen dizkiete produktuak premia handiena duten pertsoneri, akonpainamendu-neurriekin batera.

Euskadin, 564.875 kilogramo elikagai banatuko dira zaugarritasun-egoeran dauden 20.182 pertsona eta familien artean. Guztira, programa honek 84.291 kg. banatuko ditu euskal probintzietan Araban, 158.819 kg. Gipuzkoan eta 353.796 kg. Bizkaian.

Programa honetan parte hartu ahal izateko, legez eraturata egon behar dute banaketa-erakundeek, irabazi asmorik gabekoak izan behar dute, eta gaitasun administratibo, operatibo eta finantzarioa izan behar dute elikagaiak premia handiena duten pertsonen artean doan banatzeko.

Gainera, oinarrizko akonpainamendu-neurri gisa, erakunde guztiek eskaintzen dute probintzia bakoitzeko gizarte-baliabide hurbilenei buruzko informazioa. Gizarte Eskubideen Ministerioak eta Agenda 2030ek prestatu dute informazio hori, eta udaletako gizarte-zerbitzuen zentroeiri, enplegu-bulegoei eta irabazi asmorik gabeko erakunde sozialei buruzko informazioa ematen du.

Fase bakoitzean, Gurutze Gorriak dituen biltegiatzeko eta banatzeko 120 zentro baino gehiagoren artean banatzen ditu elikagaiak, probintzia guztietan.